

Loiola-Lorategi Hiria, 2012ko irailak 25.

Udazken honetan, Loiola-Lorategi Hiriaren Biziberritzeari buruzko gogoeta herritarra abian jartzera goaz

Donostiako Udalak Lorategi Hiriaren diseinu berria auzoko 50 bat bizilagunekin landu nahi du

“Loiola-Lorategi Hiria biziberritze eta txukuntzea aspaldiko beharra da eta gaia lantzeko unea iritsi da.”



■ Loiola-Lorategi hiriaren biziberritzea, eztabaidagai

Donostiako Udalak Loiola-Lorategi Hiriaren Biziberritze Plana eta diseinu berria auzoko bizilagunekin landu nahi du, orain arte gai honen inguruan kanal ezberdin eta prozesu parte hartzaile desberdinetan eman diren urratsak aintzat hartuz. Alegia, auzotarrek aztertu, landu eta sakondu nahi diren kontuak dira, adibidez:

- Lorategi Hiriko hiri-bilbea eta espazioen erabilpena.
- Eremuaren konexio eta irisgarritasuna: oinezkoena, bizikletena eta errepideei dagokiena.
- Etxebizitzak eta egungo zein etorkizuneko ekipamenduak.
- Urumea ibaiaren ertzei eman beharreko tratamendua.
- Eremuan eragina duten azpiegiturak: hirira sartzeko errepide-adar berria, Euskotren trenbide sarearen birmoldaketa, G-20 errepidearen behealdea...
- Ingurumen ikuspegitik eremuaren biziberritzea: ura, hondakinak, energia, zarata.

Gogoeta eta eztabaidaren emaitzak Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak dionari jarraituz Donostiako Udalak prestatu behar duen **Loiola-Lorategi hiria Biziberritzeko Plan Berezia idazteko** oinarria izango dira.



■ Loiolako 50 bat bizilagunek parte hartzea nahi dugu

Interesa duten loiolatar oro gogoeta eta eztabaidan parte hartzera animatzen dugu.

Udalaren nahia da 50 bat bizilagunek osatutako talde egonkorra sortzea, haiekin egitasmo honi loturiko informazioa aztertu, talde-gogoeta sustatu, iritziak jaso, proposamenak egin... hori guztia lantzeko.

Horretarako taldeak Udaleko Hirigintza eta Herritarren Partaidetza Sailetakoko teknikarien laguntza izango du; eta lan-prozesua bera kanpoko dinamizazio talde batek zuzenduko du.

■ Parte hartzeko interesa duten pertsonentzat informazio praktikoa

Prozesuan parte hartu eta zuen bizilagunekin lan kolektibo batean ekarpenak egitera animatzen bazara, **Loiolako Kultur etxean urriaren 3an eta 10ean 19:00etatik 21:00etara burutuko ditugun bi lan-bileretan parte hartzeko konpromisoa eskatzen dizugu.**

Bi lan-saio hauetan ondoko gaiak jorrazteko beharrezkoa den informazio eta laguntza teknikoa jasoko ditu taldeak:

- Plan Bereziak Loiola-Lorategi Hiriko zein behar eta erronka zehatzei eman behar die erantzun?
- Nola? Zein da herritarrek Plan Bereziaren edukiari egiten dioten proposamena?

Behin lan-saioetako emaitzak zehaztutakoan, hauek Loiola-Lorategi Hiria Biziberritzeko Plan Berezia idazteko oinarri eta erreferentzia izango ditu Donostiako Udalak.

■ Zurekin kontaktzen dugu!

Datorren urriaren 3an Loiolako Kultur Etxean zain izango gaituzu

Eskerrik asko!

Ezin baduzu etorri, baina gaiaren inguruko ekarpenik egin nahi baduzu berriz, idatzi ciudadjardin_loiola@donostia.org helbidera. Egiten dituzuen ekarpenak urriak 3 eta 10an izango diren lan bileretara eramango dira.